

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresak produkzioan ez du bere produktua externalizatuko. Produkzioa, bertako langileen esku egongo da, gainontzeko enpresen menpe egon beharrean. Horrela, produktuaren kalitatea eta kontrol osoa enpresaren ardurapean egongo da. Kostuak murrizten saiatuko dira baina produktuaren kalitatean eraginik izan gabe. Agian makina batzuk erosita langile gutxiago kontratatu beharko dira eta horrek luzaroan kostuak murriztea eta irabaziak handitzea ekar dezake.

Produktuaren kalitateaz kezkatuko dira eta kontsumitzaileek errore bat aurkitu dutela komunikatzen badute errore horiek konpontzen saiatuko dira ahalik eta azkarren. Produktua material onenekin egongo da egina, honela iraunkorragoa izango da kontsumitzaileen mesederako. hainbat lokal izango dira. Lokal bakoitzean 10 ordenagailu eta hamabost langile egongo dira ofizina lanetarako.